

**SESSION 2025**

---

**CAPES  
CONCOURS EXTERNE  
ET CAFEP**

**SECTION : LANGUES RÉGIONALES**

**BASQUE**

**ÉPREUVE ÉCRITE DISCIPLINAIRE PORTANT SUR LE BASQUE**

Durée : 6 heures

---

*L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.*

*Il appartient au candidat de vérifier qu'il a reçu un sujet complet et correspondant à l'épreuve à laquelle il se présente.*

*Si vous repérez ce qui vous semble être une erreur d'énoncé, vous devez le signaler très lisiblement sur votre copie, en proposer la correction et poursuivre l'épreuve en conséquence. De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, vous devez la (ou les) mentionner explicitement.*

**NB : Conformément au principe d'anonymat, votre copie ne doit comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé consiste notamment en la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de la signer ou de l'identifier. Le fait de rendre une copie blanche est éliminatoire.**

## **INFORMATION AUX CANDIDATS**

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie.

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ **Concours externe du CAPES de l'enseignement public :**

Concours  
E B E

Section/option  
0 4 4 0 E

Epreuve  
1 0 1

Matière  
9 3 9 3

▪ **Concours externe du CAFEP/CAPES de l'enseignement privé :**

Concours  
E B F

Section/option  
0 4 4 0 E

Epreuve  
1 0 1

Matière  
9 3 9 3





Durée : 6 heures

Coefficient 1

## **I. Composition en langue basque**

Lau dokumentu hauek oinarri harturik, «fikzioak eta errealitatea» ardatzaren inguruko gogoeta bat gara ezazu.

## Lehen dokumentua:

[Euskal irakasle bat Alaskako Anchorage hiriburuko unibertsitatera gonbidatua da euskal kulturaz kurtso bat ematera, eta une batean erabakitzen du euskal kultura "berrasmatzea", interesgarriagoa bilakarazteko]

[...]

Ikasleen aurrean euskal hizkuntzaren historia miresgarria irudikatu ondoren, gramatika kontuen azalpen aseptikoagoetan murgildu naiz, zeinetan ez baitiet gezur askori heldu behar izan: hain dago urrun ingelesetik, berez, ezen ez baitu apenas ezer behar fantastikoa suertatzeko. Datu batzuk ezkutatu dizkiet, soilik, latinetik datozen euskal hitzen ehunekoarena, esate baterako, %60-65 ingurukoa Mitxelenaren arabera, ez zaidana sekula salgarria iruditu gure hizkuntzaren nazioarteko arrakastarako, antzina-antzinako gisa, alegia.

Sentitu izan dut bide zuzenera itzultzeko bulkadarik, zer esanik ez. Azken batean, une horretara arte egindako kaltea ez zen handia, eta beti esan nezake aipatutako gauza asko beren buruak zientifikotzat dauzkaten morroi batzuek defendatutakoak direla. Edo.

Baina euskal literaturaren atalera iristean, itzulbiderik ez dagoela konturatu naiz. Alde batetik, nire ikasleen arreta bereganatzen jarraitzeko gaitzago izango dudala konturatu naiz. Nirekin ekarri nituen Axularren, Etxeberri Sarakoaren eta Txomin Agirreren testu batzuk ingelesera itzulita, eta gure literaturaren historiaren eskema txit argia buruan, baina ondo baino hobeto dakit nekez aurkituko dela hori baino gai aspergarriagorik mundu mailako kultur gaien artean. Horregatik, Ahaide Nagusien Gerren garaiko kantoreen hondarretatik zuzenean Etxeparerengana salto egin beharrean, Durango aldeko olerkari goliardo batzuen inguruko azalpen nahasi bat inprobisatu dut: unibertsitateko liburutegitik XIV. mendeko poeta aleman batzuen bertso ingelesera itzuliak kopiatu, leku eta giro erreferentzia batzuk aldatu, eta gure Erdi Aroko lirika profanoaren gailurtzat aurkeztu dizkiet ikasleei.

Txantxa hutsa da, eta hurrengo eskolan Ibon Sarasolaren *Historia social de la literatura* vascaren ildora itzultzeko asmotxoa izanda ere, nire hamabi ikasleek lehenengo hura zein erraz eta pozik irentsi duten ikusita, jarraitzea erabaki dut, gero eta ausartago eta lotsagabeago. Etxepare Ernazimentuko poeta humanista peto bihurtu dut, eta hari egotzi dizkiot Danteren *Jainkozko komediaren* bertso-lerro batzuk, Florentzia Baiona bihurtuz, eta Beatrice Begoña izenarekin birbataiatuz. Pruden Gartziairen liburuxkari jarraiki eta hura gaindituz, kasik Cervantesen pareko egin dut Lazarraga –ez da komeni gehiegi esajeratzea– eta euskaldun guztion aberria. Edonola ere, On Kixoteren ideia jatorriz arabarrarena izan zela ziurtatu diet, eta orobat idatzi zituen artzain-nobela ugariak *La Galatea* baino arrakasta eta edizio gehiago izan zituztela; hori ez da, onartzen dut, urrunegi joatea, *La Galatea* ez zelako arrakasta komertzial itzela izan, bere garaian. Zuberoako pastoralak Molièreren komediekin parekatu ditut, hala publikoan sortzen zuten zaletasunean nola umore eta

dinamismoan –jakingo balute!–, eta, Axular bigarren mailako sermolaritzat jo ondoren, eta hala litzateke zinez, garaiko euskal literaturan horren autore gutxi egongo ez balira, zenbait euskal idazle berri asmatu ditut XVII. menderako, eleberri pikareskoaren arloan batik bat, poesia kultua alde batera utzi gabe noski: Oihenart aspalditik merezi zuen lekuan ipini dut, eta soneto barrokoaren maisu bilakarazi dut. Ez naiz ausartu, ordea, artikulu zientifiko gisa aurkezten Joseba Gabilondoren "Euskal literaturaren unibertsaltasuna frogatzen duen apokrifoa" narrazioa, non kontatzen baita Shakespeareren antzezlan gehienak euskaldun batek idatzi zituela jatorriz, Martin Benitez de Cearreta lizentziatuak, euskaraz noski: Shakespeare Shakespeare da, are Alaskan ere, eta ez dut arriskuari aurre egin nahi izan. [...]

**Iban Zaldua, *Euskaldun guztion aberria*, Alberdania, 2008, 71-73. or.**

## **Bigarren dokumentua:**

### **Ipuin bat bost minututan izkribatzeko**

Ipuin bat bost minutuan izkribatzeko beharrezkoa zaizu –ohizko luma eta paper zuria ez ezik–, hareazko erloju ñimiño bat ere, zeinak, iragan denboraren berri ematen dizunarekin batera, bizitzaren eta –ondorioz– zeure aktibitate horren berberaren alfertasuna ere irakatsiko dizun, eta une oro salatuko. Eta ez eseri gero oraingo horma monotono horietako bati begira; zure begirada gal dadila leihotik harantz hedatzen den ikusmira zabal horretan, non kaio eta usoak, eta baita zenbait txori ezdeusagoak ere, beren bozkarioaren geometria marraztuz doazen. Komeni zaizu gainera –derrigorrezkoa ez izan arren– edozein musika arrotz entzutea, ulertzen ez duzun kanta errusiarren bat edo.

[...]

Sukaldean ontzi bete ur edan ondoren –eta lepagaina ur horrekin pixka batez igurtziz gero, are eta hobekiago–, bisita ezazu komuna mahai aurrean berreseri aurretik. Zeren pasilloan pixa egiteak ez baitu zer ikusirik literaturarekin.

Hor segitzen dute kaio eta usoek, leihoaz harantz hegaka; eta hor segitzen du, baita ere –ezkerretara daukazu apalean– zure betiko hiztegi zahar eta handiak. Har ezazu segituan, eta kontu handiz hartu ere, elektrizitatea balu bezala. Ondoren, hiztegia maitale bat bailitzan besarkatuz, jar ezazu esaldi hau paperean: *Ipuin bat bost minutuan izkiriatzeko beharrezkoa zaizu...*

Ez dira bi minutu bete oraindik, eta jadanik egina daukazu hasiera. Zorionak, beraz, nire zorion beroenak. Eta ez bakarrik beti ere hain zaila izaten den hasiera

horregatik, baita besarkatzen duzun hiztegi handi eta zaharragatik ere; zeren, sinetsidazu, bere orrialdeetan dago falta zaizun guztia. Zinez esaten dizut: kutxa horretan gordeta dauden milaka hitzen ahalmena infinitua da, nahi den guztia egin liteke beraiekin.

Obeditu egiozu orain zure senari, eta imajinatu zu zeu Golem berbera zarela, hots, letraz eginiko gizon ala emakume bat. Bada, zure osagarri diren letra horiek aurki dezatela beren letrakidea –sinpatiaz lehertzen diren dinamita kartutxoak bezala– hiztegiakoen artean. Nola? Zein ekintzaren bitartez?... gizona, ez zaitez hain makala izan. Ez al dakizu liburu bat zabaltzen?

Eman dezagun baietz, eta hiztegia hogeigarren letra paretik zabaltzen duzula. Halatan, burutu da ekintza, eta segundo gutxi batzuen truk gainera. Zeren zuk argia ematearekin batera, gordeta eta lo zegoen hitz bat esnatu egin baita, eta zure orriraino jaitsi; atsegin, ezti, zure ipuinari zerbitzatzeko prest. *Sarea* da hitz horren izena. Eta hor non mugimendu ttiki hori hiztegi guztia kutsatzeraino hazten den. Bai, letra guztiak urduri daude, atera dira beren lozorrotik; eta oihu egiten dute, edo kanta, edo hasperen... eta ez da, pentsatzen jarrita, hain harritzekoa ere. Hiztegiak bizi direnak umeak bezalakoak baitira; ume hutsak, jostatzeko gogoz beteak.

Luze gabe, bigarren hitz bat –inbidiatan aurrenekoarekin– inguratu egiten zaizu, eta paper zuriaren izkina batean etzan. *Esku*: hauxe da bidaiari berriaren izena.

Jadanik ez duzu hiztegiak behar. Uztazu berriro apalean, eta makurtu zaitez mahaira. Izan ere, denbora aurrera doa, eta aurreneko bi hitzek osatu duten esaldia lehenbailehen idatzi beharra daukazu... bai, gizona, parentesi artean bilduta datorren esaldi labur hori:

*(Sare hau jarri nuen aurpegian eskuak erre zitzaizkidan egunean).*

Oraintxe bete dira hiru minutuak, eta bi besterik ez zaizkizu gelditzen. Halere ez zaitu denbora gutxi horrek arduratu behar. Zeren aurreneko esaldi hori idatzi bezain azkar, beste askok ere egin nahi izango baitute zureganako bidea, hala nola egiten duen gau tximeletak argirantz. Ondo pentsatu ondoren, esaldi bat aukeratu eta parentesi artean jar ezazu. Honako hau, esate baterako:

[...]

**Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, 1988, Erein, 285-287.**



## Hirugarren dokumentua:

[...]

Jon Kapagorri, diputadu berri eta ezkerreko. Hala zen, oraindik hala da. Ardura, ahapez, emana zuen, belarri batekin aditzen zutenei, hitz emana baino askoz gehiago eginen zuela bere herriarendako. Zeren, herria, gure herria keinka txarrean zegoela ohartua bait zen (ez zen naski politiko izate beharrik horretaz konturatzeko): langabezia, euskara menperatua, lurra debalde atzerriko jaunskilei saldua, laborarien ezin bizia etab. Zerbait obratu behar zen eta laster. Ez zuten euskaldunek planeta honetako azken indioak bezala desagertu gogo. Alde guzietatik arrazoin zuten... horregatik Jon Kapagorri hautatu zuten, gazte, lerdin, zintzo.

Parisen zelarik Bourbon palazioan, Barneko ministroak manatu zion bere eginbide bakarra zela terrorismoaren harraren kontra borrokatzea, nahi bazituen beste ekintzetarako kredituak erdietsi. Bazen bai, problema bat, baina hemengo terrorismoa ez zen Parisen erraten zuten delako gangrena. Umilagoa zen, iparralde honetako ezin bizian oinarritua. Ez zukeen inolako gisetan frantses estadoaren batasuna mehatxatzen. Jon Kapagorri ez zen polizia gizon bat, eta ministroek dirua ez bazioten eman nahi, berak eta bera hautatu zuten jendeekin bildurik herriari doazkion neurriak hartuko zituen...

Soluzioak aztertu zituen. Zentral nuklear bat egin Bankan? Ez, lau mila lanpostu sortuagatik, inguruko biztanleentzat lanjerosoegi zen... Petrolioa lurrean bilatu? Amikuze alde horretan ba omen bait dago Laquetik datorren filon bat; baina hau ere baztertu zuen, ikerketak karioegi zirelakoan, eta petrolioa balitz, jende artean ekonomiko desberdintasun larriak ager zitezkeelakotz. Ez zuen batere desiratzen Edwing bat edo Carrington bat bere bozkatzailleetan... Pentsatu zuen Japoniako moto fabrika bati hona etortzea galdegitea. Ordea, bazekien japoniarren lan metodoen berri. Beraz utz! Lau bost egunez arizan zen herriaren geroari amesten. Soluzioak oro onak zitezkeen, baina...

Bere aitamen etxera joan zen Jon Kapagorri. Berritan finitua zuten villan afaldu zuten hiruek. Ezkaratzean, hemeretzigarren mendeko muble baten gainean, plastikozko gauza bati so egon zen. Han zen, urez betetzeko plastikozko Ama Birjina bat, dena xuri eta urdin, irri leunezko emaztea, Ama Birjina... Jon Kapagorriren ama, arras fededuna zen: urtero Lurdara joaten zen Baionako Apezpikuak kudeatu euskaldunen beilara. Han herri guzietako fededunak aurkitzen ziren: Senperekoak, Hazparnekoak, Itsasukoak, Luhusokoak, Oragarrekoak (ez azkenak ritualetan!), Buztintzekoak, Bankakoak, Maulekoak, Santagrazikoak eta Zalgizekoak... Hots, Euskal Herria.

Idea. Idea handia, ospetsua, ohoragarria. Idea geniala. Euskal Herrian Lurdes bat moldatzea, Ama Birjina batekin, Soubirousa batekin, eta Basilika baten inguruan eraiki komertzioekin. Idea ezin sinetsia. Berari gertatzen zitzaion lehen mirakulu kosmikoa, edo komikoa behintzat... Basilika: mila metro gorako urrezko dorrearekin, gotiko estiloan, Pariseko katedrala baino ederrago, Lurdeseko Chantilly meta ahantzaziko zuen basilika.

Ideia horren alde onak eta alde txarrak miatu zituen. Hondarrean ez ziren alde onak baizik gelditzen. Ez dakit zenbat lanpostu kreatuko zituen obra hori bururaino eramateko. Lehenik beharko zen Soubirous bat atzeman, bigarrenik *commission de contrôle des miracles* bat, hirugarrenik norbaitek Ama Birjina berezi baten itxura marrazkitu beharko zuen, gero basilikaren altxatzeko harginak, maixturuak, zurginak, zizelkariak, tindalariak, artesauak bildu beharko ziren, eta azkenean tenploko komertzanteak. Komertzanteek bazuten jadanik aski esperientzia, ari baitziren udaro turistei euskaldunez beztitu panpinen eta xahako hutsen saltzen.

Gau guzian, ohean, bakarrik, itzuli-mitzulika arizan zen. Eta bai, hau dena egiztatzea ahalezkoa zen. Baina konplizeak, segurrak, xerkatu behar zituen. Irulegin neska bat ezagutzen zuen, Elorri izenekoa, hamabi urte zeuzkana. Bi-biak ibiliak ziren eskuz esku, nehork ikusi gabe, Iratiko sasietan amets zoro egiten. Bai Elorri izanen zen; berdin ados ez bazen hilabetero zerbait pagatuko zion Soubirous berria josta sari... Bestalde, bazuen bere lagunetan apez bat gaztea eta berezia: Kepa Oihenarte. Uztaritzeko seminario ttikian egonak ziren elkarrekin eskoletan. Kepa mutiko fidagarria zen. Bi hauekin hasiko zen beraz...

[...]

**Itxaro Borda, *Basilika*, Susa, 1984.**

**Laugarren dokumentua:**

### **66 Ierro hiri setiatuan**

Gasteizko plaza eta kaleak lasai zeharkatzean,  
egunero bezala lanera edo lagunengana,  
bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
hau bera han egitea  
arriskutsua dela oso egun askotan,  
eta etxegainei begiratuz kalkulatzeko dut,  
begia hotz, dardar gogoa,  
zein aukeratuko lukeen franko-tiratzaileak,  
nondik etorriko ene burua

lore beltz odolezko bilakatuko duen bala,  
susmagarria baita plaza zabalegi hori. Kale hura.  
Etxe handiz inguraturiko parkea.

Entzun dut Sarajevoko parkeetan  
zuhaitzik ez dagoela jadanik,  
biztanleek moztu baitituzte etxeak berotzeko,  
eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
ez dudala nik etxean sua egiteko leku egokirik.  
Gainera, ene kalea eraikuntza ofizialez beterik dago,  
eta gobernu-bulegoak garrantzizkoak omen direnez  
gerra garaian,  
bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
kalea istilugune bihurtu eta  
suntsiturik egon daitekeela agian  
Sarajevoko ene etxea.  
Nola moldatzen da ni naizena Sarajevon?  
Lanera doa oraindik abididez? Ala  
ohitura arrunt horiek guztiak aspaldian desagertu ziren?  
Eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
ikastetxeak itxita egongo direla ziur asko,  
nirea, gainera, trenbidearen bestaldean dagoela, geltokitik hurbil,  
eta trenbideak eta geltokiak kontrolatu beharreko gauzak omen direla  
gerra garaian.

Luzaro iguriki iristen ez diren eskutitzak  
eta berriak ezin izkiriatu.

Nola egiten ditut erosketak Sarajevon?  
Kilo patatak hamar marko balio duenetik  
orduak ematen ditut batuketak eta kenketak egiten  
baina emaitzak gose dira beti.  
Eta bat-batean asaldaturik pentsatzen dut  
gosea, hotza, izua, ilarak, zori txarra  
ohitura ezin arruntegiak direla

gerra garaian.

Banaturik dago jadanik hiria,  
barne mugak zauri dira  
eta zauri horien odola ez da metafora,  
trenbideaz haraindi etsai lagunak,  
zubiaz honaindian lagun etsaiak.  
Niri egokitu zaidan egoerari nola egokitu natzaio ni?  
Eta bat-batean asalaturik pentsatzen dut  
ama sartaldean bizi dela eta ni berriz erdialdean  
eta bi auzoak, anaiarena ere bai, urrunago egon daitezkeela  
gerra garaian,  
eta banaketa horiek ezustekoak direla eta ankerrak,  
gau hartan zure etxean afaldu nuelako nago hemen.  
Ez da falta Gasteizko inguruetan  
leku egokirik artilleria kokatzeko,  
Zaldiaran edo Gasteizko mendiak  
ez dira lldza mendia bezain ikusgarriak izango,  
baina handik jaurtiriko bonbek lan ona egin dezakete.  
Eta gero errepideetara oinez irten, pardelxoak bizkarrean,  
hiritar hirigabeak,  
udan bada sargori, neguan bada izotz,  
inora ez doazen bideetan galdurik,  
inon ez dagoen babesaren bila;  
bake-itunak sinatu arte bizirik irautea da kontua.  
Ez dezala deabruak beste 6 bat idatz.

**Ricardo Arregi Diaz de Heredia, *Kartografia*, Erein, 1998.**

## II. Traduction

### 1. Version : testu hau euskarara itzul ezazu.

J'étais sur les six heures à la descente de Ménilmontant presque vis-à-vis du Galant Jardinier, quand des personnes qui marchaient devant moi s'étant tout à coup brusquement écartées je vis fondre sur moi un gros chien danois qui, s'élançant à toutes jambes devant un carrosse, n'eut pas même le temps de retenir sa course ou de se détourner quand il m'aperçut. Je jugeai que le seul moyen que j'avais d'éviter d'être jeté par terre était de faire un grand saut si juste que le chien passât sous moi tandis que je serais en l'air. Cette idée plus prompte que l'éclair et que je n'eus le temps ni de raisonner ni d'exécuter fut la dernière avant mon accident. Je ne sentis ni le coup ni la chute, ni rien de ce qui s'ensuivit jusqu'au moment où je revins à moi.

Il était presque nuit quand je repris connaissance. Je me trouvai entre les bras de trois ou quatre jeunes gens qui me racontèrent ce qui venait de m'arriver. Le chien danois n'ayant pu retenir son élan s'était précipité sur mes deux jambes et, me choquant de sa masse et de sa vitesse, m'avait fait tomber la tête en avant : la mâchoire supérieure portant tout le poids de mon corps avait frappé sur un pavé très raboteux, et la chute avait été d'autant plus violente qu'étant à la descente, ma tête avait donné plus bas que mes pieds.

Le carrosse auquel appartenait le chien suivait immédiatement et m'aurait passé sur le corps si le cocher n'eût à l'instant retenu ses chevaux. Voilà ce que j'appris par le récit de ceux qui m'avaient relevé et qui me soutenaient encore lorsque je revins à moi.

**Jean-Jacques Rousseau, *Rêveries du promeneur solitaire*, 1817.**

### 2. Thème : testu hau frantsesera itzul ezazu.

Hariztegi hunek garbia zuelarik iduri, ez dugu bizkitartean errexki aurkitzen toki xahu bat nun bazkariteko jar. Barnasko atzemaiten dugu azkenean behar bezalakoa, bospasei haritzondoren artean, erdi iguzki, erdi itzal. Sorhopilan hedatzen daukute andretarik biek dafaila, mahaineko untzi eta tresneria guziarekin, bertze lagunak bizkarraz zutoier ahal bezain erosoan gaudelarik, elgarri buruz buru.

Bainan zer jateko urintsu, hotz, usain gozo gabeko, muthiriak! Pizteko orde, lotsa lezagukete zinez barnea, ez bagine oro gose amikatuak. Bego nausi etxeko xokoa, eltzetik bafadan athera salda beroarekin.

Urriki dugu Iruñan ez gelditurik, ostatu on batean. Zer bitxikeria, bertzalde, halako hiri zahar orhoitzapenez hanpatuari ikuska gehiago ez emanik! Gai zitaken, bada, nihun izaitekotz bat, bere jauregi, museo, udaletxe, liburutegi eta eliza ederrez. Katedraleak berak merezi zuken egon gindizkion astikixago beha; etzaikularik nehoriduritu Baionakoa bezain arin eta begikoa barnez, orhoituko gira gure bizian haren gorputz gaitzaz eta sahetsari datxizkon kalostrazpi miragarriez. Nun da ere, erraiteko, Strasbourgekoan izan ezik, Baionako eliza nausiak daukan erdiko egoitegia bezain lirainik?

Norbaitek miresten du bertzalde ez dugula ikusi San Frantses Javierekoaren sor etxea. Egin ginuken gogotik, gure bidean izan balitz; baina, Iruñako bertzaldean da aurkitzen Javier, urrunsko, iuzpegi-alderat.

Nabar Goitiko ogi ona lagun, baderamatzagu kilimiliklik xerriki hotz xeheak eta lotuak gira ja biperrekilako arroltze-moletari, noiz ere ohartzen baikira gure bi botoila Rioja hautak hustuak ditugula azken xortaraino. Berrogain bizkarra! Emazteek berek zoin gogotik hurruputzen duten arnoa oihanean!... Ordaintzat, batek eskaintzen dauku urez betherikako botoila bat, ezinbertzean hartarik bederen dezagun edan: orok ezetz, burua inharrosiz urari beltzurika...

**Jean Etxepare, *Beribilez*, 1931.**